



**26/ 2014 EBAZPENA, MAIATZAREN 9KOA, GORLIZ OSPITALEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEARENA, ZEINAREN ARABERA ONARTZEN BAITA GORLIZ OSPITALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2013-2019 PROGRAMA.**

67/2003 Dekretuak, martxoaren 18koak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko denak, ezartzen ditu Osakidetzaren Euskara-planaren oinarriak.

Dekretu horren 3. Artikuluan aurreikusitakoa betez, lehenengo plangintzaldia amaitu eta helburuen lortze-maila ebaluatu ondoren, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak 2013ko abenduaren 3an akordio baten bidez onartu zuen euskararen erabilera normalizatzeko 2. plana, 2013-2019 eperako. Planak baliagarria izan behar du lehenengo plangintzaldian lortutakoa sendotzeko eta beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak egiteko, eta era berean, normalizazio-prozesua helburu berrietara bultzatzeko, halakoak non lagundu behar baitute Osakidetzaren euskararen erabilera erabat normalizatzeko xederantz joateko.

Administrazio Kontseiluaren akordioak bigarren atalean ezartzen du zerbitzu-erakundeek bere euskara-plan edo programak onartuko dituztela, horrela zehaztuz Euskara-plan orokorrean jasotakoa.

Akordioak azpimarratzen du garrantzitsua dela kontuan hartzea Osakidetzaren Euskara-planaren helburu orokorra zein den, alegia, herritarren hizkuntza-eskubideak babesten aurrera joateaz gainera, pazientearekiko komunikazioa eta enpatia hobetzea, giltzarria baitira osasun-arreta ezin hobea izan dadin. Horregatik, zerbitzu-erakunde honen euskara-programak lagundu behar du herritarrari ematen zaizkion zerbitzuak hobetzen.

Osakidetzaren Euskara-planak aurreikusten du zerbitzu-erakundearen programen bidez aplikatua izatea, eta horien egitura, edukia eta onartzen modua ezarrita dago Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren urtarilaren 10eko 2/2014 Jarraibideetan.

Horiek horrela izanik, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz,

#### EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** Onartzea Gorkiz Ospitalean euskararen erabilera normalizatzeko programa, Osakidetzaren II Euskara-plana, 2013-2019rako dena, abiarazteko eta betetzeko. Ebazpen honen I., II. eta III. Eranskinak normalizazio-programaren oinarria osatuko dute.

**Bigarrena.-** Konpromisoa hartzea Zuzendaritza Kudeatzailean jarduera-arloan jasotzeko, aplikatzeko eta garatzeko Osakidetzaren II Euskara-planak dituen irizpideak eta neurriak euskararen erabilera garatzeko, ezartzeko, betetzeko eta ebaluatzeko. Ildo horretatik, Normalizazio-programaren eranskinetan jasotako neurrien betetze-prozesua koordinatuko eta jarraipena egingo dio.

**RESOLUCIÓN 26/2014, DE 9 DE MAYO, DE LA DIRECTORA GERENTE DEL HOSPITAL GORLIZ, POR LA QUE SE APRUEBA EL PROGRAMA DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA DEL HOSPITAL GORLIZ PARA EL PERIODO 2013-2019.**

El Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, establece las bases que han de regular el Plan de Euskera del Ente Público.

En aplicación de lo previsto en el artículo 3 de dicho Decreto, una vez finalizado el primer período de planificación y realizada la evaluación de cumplimiento de objetivos, el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud aprobó, mediante Acuerdo del 3 de diciembre de 2013, el 2º Plan de normalización del uso del Euskera para el período 2013-2019. Dicho plan ha de servir para consolidar los logros alcanzados en el primer periodo de planificación y realizar las adecuaciones que se estimen necesarias y, a su vez, impulsar el proceso hacia nuevos objetivos, que permitan avanzar hacia la completa normalización del uso del euskera en Osakidetza.

Dicho Acuerdo establece en su apartado segundo que las Direcciones de las Organizaciones de Servicios aprobarán sus respectivos Planes o Proyectos de Normalización del Uso del Euskera, como concreción del mencionado Plan de Euskera general.

El Acuerdo subraya la importancia de tener presente que el Plan de Euskera del Ente Público tiene por objetivo general, además del necesario avance en la protección de los derechos lingüísticos de los ciudadanos, mejorar la calidad de la comunicación y la empatía con el paciente, como elementos claves de la óptima prestación asistencial. Por ello, el programa de Euskera de esta Organización de Servicios ha de contribuir a la mejora de los servicios prestados al ciudadano.

El Plan prevé su aplicación a través de programas específicos de las organizaciones de servicios de Osakidetza, cuya estructura, contenido y modo de aprobación establece la Instrucción 2/2014, de 10 de enero, del Director General de Osakidetza.

En su virtud, y en uso de las facultades atribuidas por la legislación vigente,

#### RESUELVO

**Primero.-** Aprobar el Programa de Normalización del uso del Euskera del Hospital Gorkiz para la puesta en marcha y la materialización del II Plan de Euskera de Osakidetza para el periodo 2013-2019. Los anexos I, II y III de esta resolución conformarán la base del programa de normalización.

**Segundo.-** Tomar el compromiso de adoptar, aplicar y desarrollar, dentro del ámbito de actuación de la Gerencia, todos los criterios y medidas de normalización oportunas para el desarrollo, implantación, ejecución y evaluación del uso del euskera recogidos en el II Plan de Euskera. En este sentido, coordinará y realizará el seguimiento del proceso de ejecución de las medidas aprobadas en los anexos del Programa de Normalización.



**Hirugarrena.-** Agintzea Programa hau Ospitaleko iragarki-  
taulan eta intraneten jende aurrean jartzeko.

**Tercero.-** Ordenar la publica exposición del Programa en los  
tablones de anuncios y en la intranet del Hospital.

#### **Azken xedapena**

Gorliz Ospitaleko Zuzendari Kudeatzailearen Ebazpen hau, zeinaren arabera onartzen baita Gorliz ospitalean euskararen erabilera normalizatzeko 2013-2019 programa onartzen baita, aurkatu daiteke gora-jotzeko errekurtsua aurkeztuz Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari nagusiari, hilabete bateko epearen barruan, ebazpena jendea aurrean jarri eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, bat etorritz 4/99 Legeak ezarritakoarekin. Lege horrek aldatzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

#### **Disposición final**

Contra la presente Resolución de la Directora Gerente del Hospital Gorliz, por la que se aprueba el Programa de Normalización del uso del Euskera del Hospital Gorliz para el periodo 2013-2019, podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su exposición, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Gorlizen, 2014ko maiatzaren 9an/ En Gorliz, a 9 de mayo de 2014

  
**Osakidetza**  
  
**GORLIZ OSPITALEA**  
**HOSPITAL GORLIZ**  
**ZUZENDARI GERENTE**  
**DIRECTORA GERENTE**

Iz./Fdo: Carmen Rodríguez Rodríguez  
**ZUZENDARI KUDEATZAILEA / DIRECTORA GERENTE**

## I. ERANSKINA

### GORLIZ OSPITALEAREN PROGRAMA II. EUSKARA-PLANAREN ERABILERA-NEURRIEN GAINEKO ARDURAK ZEHAZTU ETA ZEHAZTAPENAK ETA JARRAIPENA EGITEKO

#### 1.KAPITULUA: KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

| ATALA                                        | NEURRIA*                                                                                                                                         | AZALPENA                                                                                                                            | DATA                  | ARDURADUNAK                                                   |
|----------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|---------------------------------------------------------------|
| 1.1.Errotuluak                               | Zuzendu errotuluetakako erroreak                                                                                                                 | Gaztelaniaz hutsean dauden errotuluak ordeztu eta euskaran nahiz gaztelanian argiro txarto daudenak zuzendu                         | 2014ko martxoa        | Zuzendaritza ekonomikoa<br>Euskara-arduraduna                 |
|                                              | Uniformeetako identifikagarriak elebidunak egitea                                                                                                | Kategoria euskaraz eta gaztelaniaz jartzea                                                                                          | 2014ko martxoa        | Zuzendaritza ekonomikoa                                       |
|                                              | Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak enpresen errotuluetan eta paneletan betetzea                                                          | Betekizun gisa jaso behar da kontratuetan                                                                                           | 2014-2019             | Zuzendaritza ekonomikoa<br>Euskara-arduraduna                 |
|                                              | Euskara hutsez egitea erro bera duten hitzez egindako errotuluak                                                                                 | Euskaraz eta erdaraz ia berdinak diren testuei dagokie, kasu, <i>logopedia</i>                                                      | 2014-2019             | Zuzendaritza ekonomikoa<br>Euskara-arduraduna                 |
| 1.2.Afixak                                   | Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak aplikatzea Ospitaleak nahiz enpresek edo elkarteek ospitalean jarritako afixa guztietan               | Komunikazio-prozesutik protokolizatuta, zeinek aurretik bere oniritzia emango baitie enpresek eta elkarteek jartzen dituzten afixei | 2014-2019             | Zuzendaritza guztiak<br>Euskara-arduraduna                    |
| 1.3.Paperak                                  | Berrikustea eta normalizatzea bisita-txartelak, zigiluak, txartel handiak, fax-karatulak, poltsak                                                | Erabiltzen diren ereduak jaso eta identitate korporatiboaren irizpideen arabera egokitzea                                           | 2014ko apiril-maiatza | Zuzendaritza ekonomikoa<br>Euskara-arduraduna                 |
| 1.4. Interneta, Intraneta eta gizarte-sareak | Bermatzea ospitalearen kanpoko web-gun osoan euskaraz eta erdaraz nabigatu ahal dela, bai eta informazio orokorrak ere euskaraz jaso daitezkeela |                                                                                                                                     | 2014-2019             | Zuzendaritza kudeatzailea<br>web-taldea<br>Euskara-arduraduna |

|                                                                           |                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                 |                |                                                                            |
|---------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|----------------------------------------------------------------------------|
| 1.5. Aldizkariak, buletinak                                               | Segurtasun-klinikoko buletina hizkuntza ofizial bietan argitaratzea                                                                                             | Argitalpen berriek irizpide horri jarraituko diote, edo kasuan-kasuan, 1/3 euskarari egongo da, gaztelan egon gabe              | 2014-2019      | Zuzendaritza kudeatzailea<br>Dagokion zuzendaritza<br>Komunikazio-prozesua |
|                                                                           | Farmaziako buletina euskara-planaren eskakizunen arabera egokitzea                                                                                              | Buletinaren izena eta edukiaren laburpena euskarari ere egongo da                                                               | 2014ko martxoa | Farmazia<br>Euskara-arduraduna                                             |
| 1.6. Ekitaldi publikoak, jardunaldiak                                     | Neurriak jartzea jende aurreko ekitaldietan euskara erabili dadin                                                                                               | Komunikazio-prozesuak proposaturik                                                                                              | 2014ko maiatza | Zuzendaritza kudeatzailea<br>Komunikazio-prozesua                          |
|                                                                           | Euskararen erabilera bermatzea ekitaldi publikoen deialdietan, programetan, agurretan. Erabilera bultzatzea ekitaldietako ikus-entzunezkoetan eta dokumentuetan | Egoera horietan euskaraz jarduteko adierazpen-ereduak egingo dira, eta jarraibideak emango dira hizkuntza ofizialak erabiltzeko | 2014-2019      | Zuzendaritza guztiak<br>Euskara-arduraduna                                 |
| 1.7. Agurrak eta lehenengo esaldiak paziente eta erabiltzaileen harrerari | Ahal den neurrian lehenengo kontaktua eta arreta euskaraz egitea onarpen eta informazio unitateetan                                                             | Kontuan hartzen da langile elebakar salbuetsia dagoela                                                                          | 2014-2019      | Zuzendaritza medikoa<br>Zuzendaritza ekonomikoa                            |

\*Neurrien jarraipena sei hilabetetik behin egingo da berariaz deitutako bilera batean egingo da, non parte hartuko duten unitateburuek, zuzendaritzek, euskara-arduradunak; orobat, urtero Zuzendaritza-kontseiluak jarraipena egingo du.

## 2. KAPITULUA: KANPO-HARREMANAK

| ATALA                                           |                                                                           | NEURRIA*                                                                                           | AZALPENA                                                                                                                                                                                                                                                              | DATA      | ARDURADUNAK                                               |
|-------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------------------------------------------------------|
| 2.1.<br>Paziente<br>eta<br>erabiltzaile<br>ekin | 2.1.1. Ahozko komunikazioan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak    | Osakidetzaren ahozko komunikaziorako irizpideak ezartzea                                           | Euskara edo gaztelania paziente eta erabiltzaileak adierazitako lehentasunari jarraiturik erabiliko dira, eta hori erraztearren, lehenengo kontaktua euskaraz egingo dute langileek, bereziki arreta ele bietan emateko gai direnek                                   | 2014-2019 | Zuzendaritza asistentzialak                               |
|                                                 |                                                                           | <i>Euskaraz bai sano!</i><br>Egitasmoa bultzatzen eta sendotzen jarraitu                           | Langile berriei aukera eskainiko zaie egitasmoan parte hartzeko                                                                                                                                                                                                       | 2014-2019 | Zuzendaritza asistentzialak                               |
|                                                 | 2.1.2. Idatzizko komunikazioan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak | Osakidetzaren irizpideak ezartzea idatzizko komunikazioaren ohiko baliabideetan eta telematikoetan | Paziente eta erabiltzaileentzako dokumentuak ele bietan egingo dira, non eta interesdunak ez duen esaten euskaraz bakarrik jaso nahi duela, eta nahi hori betetzeko modua bada.<br><br>Paziente eta erabiltzaileen kexak eurek erabilitako hizkuntzan erantzungo dira | 2014-2019 | Zuzendaritza guztiak                                      |
|                                                 | 2.1.3. Irizpideak langileei helaraztea                                    | Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak Ospitaleko langileei helaraztea                         | Aurrez aurrean, emailez, afixez, diptiko batez, <i>Harrera euskaraz</i> gidaren bidez                                                                                                                                                                                 | maiatza   | Unitateetako arduradunak Euskara-arduraduna               |
|                                                 |                                                                           | Irizpideak jasotzen dituzten afixak unitateetan jartzea                                            | Onarpenean, informazioa, UTR eta ospitalizazioko solairuetan                                                                                                                                                                                                          | maiatza   | Unitateetako arduradunak Euskara-arduraduna               |
|                                                 |                                                                           | Irizpide horien jarraipena eta ebaluazioa egitea                                                   | Sei hilabetetik behin unitateetako arduradunek eta zuzendaritzek jarraipena egitea                                                                                                                                                                                    | 2014-2019 | Unitateetako arduradunak Zuzendaritzak Euskara-arduraduna |

|                                                                                |                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |               |                                                      |
|--------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|------------------------------------------------------|
| 2.2. Zerbitzu elebidunen eskaintza                                             | pazienteak eta erabiltzaileak informatzea unitate asistentzialetan euskaraz jarduteko dituzten aukerei buruz                                             | Webaren bidez, harrera-uneko informazioaz <i>Euskaraz bai sano!</i> identifikagarrien bidez                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | 2014-2019     | Zuzendaritza kudeatzailea, medikoa, erizaintzakoa    |
| 2.3. Pazientearen lehenetako hizkuntza ahozko komunikazioan                    | Protokolo bat sortzea arreta medikoa euskaraz bideratzeko                                                                                                | Osakidetzan euskara lehenetako hizkuntzatzat erregistratu duten pazienteei zuzenduta                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | 2014ko azaroa | Zuzendaritza kudeatzailea, medikoa, erizaintzakoa    |
| 2.4. Hornitzaileak, finantza-etxeak, administrazioak, elkarteak, elkargoak ... | Lehenengo kontaktua euskaraz izan dadin bultzada ematea                                                                                                  | Paziente eta erabiltzaileekiko hizkuntza-irizpideen antzekoak erabiltzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 2014ko ekaina | Zuzendaritza guztiak Euskara-arduraduna              |
|                                                                                | Idatzizko komunikazio elebidunak bultzatzea                                                                                                              | Paziente eta erabiltzaileekiko hizkuntza-irizpideen antzekoak erabiltzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 2014ko ekaina | Zuzendaritza guztiak Euskara-arduraduna              |
| 2.5. Hizkuntza-irizpideak zerbitzuen kontratazioan eta produktuak eskuratzean  | Hizkuntza-baldintzak zerbitzu-kontratuetan sartzea eta, ahal den neurrian, hizkuntza-irizpideak hornikuntzak eta ekipamenduak eskuratzerakoan erabiltzea | Erabiltzaileari zuzendutako testuak dituzten hornikuntzak, hala nola kafe-makinak nahiz elikagaiak saltzen dituztenak, ostalaritza, ekipamendu asistentzialak, inprimagailuak, fotokopiagailuak... Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez 2009an onartu ziren plegu-ereduak erabiliko dira («Obra, hornidura eta zerbitzuetako kontratuetarako karatula bateratuen eta klausula administratibo partikularren pleguen ereduek») | 2014-2019     | Zuzendaritza kudeatzailea<br>Zuzendaritza ekonomikoa |

\*Neurrien jarraipena egingo da asebetetze-inkesten bidez eta sei hilabetetik behin berariaz deitutako bilera batean egingo da, non parte hartuko duten unitateburuek, zuzendaritzek, euskara-arduradunak; orobat, urtero Zuzendaritza-kontseiluak jarraipena egingo du.



### 3. KAPITULUA: BARRUKO HARREMANAK

| ATALA                           |  | NEURRIA*                                                                                                                                                   | AZALPENA                                                                                                                                                                                              | DATA                                 | ARDURADUNAK                                                            |
|---------------------------------|--|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|
| 3.1. Lantokiko hizkuntza-pasaia |  | Euskaraz eta erdaraz jartzea unitateetan dauden afixa suntsikorrak                                                                                         | Beti ere unitateetako jarduera oztopatzen ez den hainean. Azterketa orokorra egin behar da, eta geratzen direnak euskaraz jarri                                                                       | 2014ko uztaila                       | Zuzendaritza guztiak<br>Euskara-arduraduna                             |
|                                 |  | Gela eta unitateetako etiketak, artxiboak, karpetak..., euskaraz eta erdaraz jartzea                                                                       | Orobat, arretaz ibiliko gara unitateetako jarduerari eragin kaltegarriarik egon ez dadin                                                                                                              | 2014ko apirila                       | Zuzendaritza guztiak<br>Euskara-arduraduna                             |
|                                 |  | Euskaraz jarri segurtasuneko, lan-osasuneko eta ingurumeneko errotuluak                                                                                    | Emergentzietako irteerak, ebakuazio-planoak, su-itzalgailuak ...                                                                                                                                      | 2014ko martxo-abendua                | Zuzendaritza ekonomikoa, pertsonaleko zuzendaritza, Euskara-arduraduna |
| 3.2.1. Lan-harremanak           |  | Jarraibideak ematea langileekiko ahozko (aurrez aurrekoan eta telefonikoan) komunikazioan hizkuntzak erabiltzeko irizpideak arian-arian aplikatzen joateko | Zuzendaritzetan, pertsonal-sailean, informatikan, kudeaketa ekonomikoan, lan-osasunean, irakaskuntza-prestakuntza, komunikazioan                                                                      | 2014ko martxoa                       | Gerentzia, pertsonaleko zuzendaritza                                   |
|                                 |  | Idatzizko komunikazioan hizkuntzak erabiltzeko irizpideak aplikatzea                                                                                       | Iragarkiak, zirkularrak, gutunak, email orokorrak, deialdiak, prestakuntza, lan-osasuna, pertsonaleko sailaren dokumentuak, hala nola eskabideak, lan-kontratuak, izendapenak, ebazpenak, nominak ... | 2014ko martxotik<br>2019ra bitartean | pertsonaleko zuzendaritza                                              |
|                                 |  | Langile berriei harrera egiteko eskuliburua ele bietan zabaltzea                                                                                           |                                                                                                                                                                                                       | 2014-2019                            | pertsonaleko zuzendaritza                                              |
|                                 |  | Ahal den heinean, langile berriei gurago duten hizkuntzan harrera egitea                                                                                   | Erdiko arduradunentzako protokoloa                                                                                                                                                                    | 2014-2019                            | pertsonaleko zuzendaritza                                              |

|                           |                                             |                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                        |                                            |                                                                                 |
|---------------------------|---------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|
|                           |                                             | Sindikatuiei konpromisoen akordio bat proposatzea bere langileekin dituzten komunikazioan euskara erabil dezaten                                          |                                                                                                                                                                                                        | 2014ko martxo                              | pertsonaleko zuzendaritza                                                       |
| 3.3.Forma<br>ción         | 3.3.1.Osakidetzako eten gabeko prestakuntza | Langileei bidea erraztea etengabeko prestakuntza euskaraz jaso dezaten                                                                                    |                                                                                                                                                                                                        | 2014-2019                                  | Zuzendaritza guztiak                                                            |
|                           | 3.3.2. Gorlizko eten gabeko prestakuntza    | Eten gabeko prestakuntza eskaintzen hastea                                                                                                                | Ospitaleak dituen aukeren eta langileen erantzunaren arabera                                                                                                                                           | 2014-2019                                  | Zuzendaritza guztiak                                                            |
|                           |                                             | Ikastaroak zein hizkuntzatan ematen diren zehaztea eta informazioa hizkuntza ofizial bietan zabaltzea                                                     | Ikastaroen materiala ikastaroa ematen den hizkuntzan emango zaie ikasleei                                                                                                                              | 2014-2019                                  | Prestakuntza-arduraduna<br>Euskara-arduraduna                                   |
|                           | 3.3.3. Euskara ikasteko ikastaroak          | Euskara ikasteko plana bat egitea lehentasuneko unitateen premiei                                                                                         |                                                                                                                                                                                                        | 2014ko martxo                              | pertsonaleko zuzendaritza,<br>zuzendaritza asistentzialak<br>Euskara-arduraduna |
|                           | 3.3.4. Prestakuntza osagarria               | Erdiko arduradunak prestatzea elebitasun, hizkuntza-normalizazio eta hizkuntza-ofizialen erabilerari buruz                                                | programa-kontratua                                                                                                                                                                                     | 2014                                       | pertsonaleko zuzendaritza<br>Euskara-arduraduna                                 |
|                           |                                             | Prestakuntza-ekintzak antolatzea eta birziklatzeko, gaurkotzeko eta jarrerak hobetzeko tresnez hornitzea, arreta berezia jarriko bizkaieraren sustapenean | Batez ere hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileei zuzenduta, eta besteak beste eskueran egongo dira <i>Comunicación Interna</i> karpetakoak eta <i>Astondoko Barriak</i> edo antzeko hedabideak | 2014ko maiatzetik                          | pertsonaleko zuzendaritza<br>Euskara-arduraduna                                 |
| 3.4. Trebakuntza euskaraz |                                             | Urte bitarako trebakuntza-programa bat egitea                                                                                                             | Trebakuntza tekniko-hizkuntzazkoa langileen eguneroko jarduerari loturik egingo da                                                                                                                     | 2014ko martxo<br>2016ko martxo             | pertsonaleko zuzendaritza<br>Euskara-arduraduna                                 |
|                           |                                             | Trebakuntza-programa betetzea eta ebaluatzea                                                                                                              | Ospitalearen baliabideez                                                                                                                                                                               | 2014ko ekain-abendua, 2016ko apiril-azaroa | pertsonaleko zuzendaritza<br>Euskara-arduraduna                                 |



|                                            |                                                        |                                                                                                                            |                                                                                                                              |                      |                                                                                         |
|--------------------------------------------|--------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------|
| 3.5. Baliabide informatikoak               |                                                        | Informatzea eskueran dauden aplikazio informatikoei buruz                                                                  | Osakidetzakoak eta ofimatiko orokorrak                                                                                       | 2014ko apirila       | Informatika Euskara-arduraduna                                                          |
|                                            |                                                        | Langile elebidunak euskaraz lan egin ahal izateko laguntza-tresnez hornitzea                                               | Zuzentzaile ortografikoak, hiztegi elektronikoak, online gramatikak ...                                                      | 2014ko martxoa       | Informatika Euskara-arduraduna                                                          |
| 3.6. Komunikazio horizontala eta bertikala | 3.6.1. Lan-hizkuntza                                   | Programa bat abiaraztea euskara ere kudeaketa ekonomikoko eta kontabilitateko dokumentuetan arian-arian erabiltzen joateko |                                                                                                                              | 2014ko uztail-urria  | Zuzendaritza ekonomikoa Euskara-arduraduna                                              |
|                                            |                                                        | Euskararen presentzia emendatzea kalitatearen eta kudeaketaren dokumentuetan                                               |                                                                                                                              | 2014ko uztail-urria  | Zuzendaritza ekonomikoa kalitateko arduraduna Euskara-arduraduna                        |
|                                            |                                                        | Plan estrategikoa, memoriak, kudeaketa-planak hizkuntza ofizial bietan argitaratzea                                        |                                                                                                                              | 2014-2019            | Gerentzia Euskara-arduraduna                                                            |
|                                            | 3.6.2. Hizkuntza ofizialak bileretan erabiltzea        | Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera lan-bileretan, ekipoetan, hobekuntza-taldeetan eta batzordeetan                  | Erabileraren jarraibideak, deialdiak egiteko ereduak, akta-ereduak, mezu elektronikoaren ereduak                             | 2014ko apiril-ekaina | Gerentzia, zuzendaritzak, erdiko arduradunak, kalitateko arduraduna, Euskara-arduraduna |
|                                            |                                                        | Neurriak hartzea bilera orokorretan euskara erabil dadin                                                                   | Komunikazio-prozesuaren proposamenez, agurretarako, deialdi, programa, laburpen, ikus-entzunezko aurkezpen, dokumentuetarako | 2014ko apiril-ekaina | Gerentzia Euskara-arduraduna komunikazioko prozesua                                     |
|                                            | 3.6.3. Euskararen erabilera langileen artean sustatzea | Aldizkari bat argitaratzea euskararen normalizazioari buruz                                                                | sei hilabetekaria, Astondoko Barriak                                                                                         | 2014-2019            | Euskara-arduraduna                                                                      |
|                                            |                                                        | Euskarazko kultur informazioa zabaltzea                                                                                    | Langile euskaldunen banaketa-zerrendaren bidez                                                                               | 2014-2019            | Euskara-arduraduna                                                                      |
|                                            |                                                        |                                                                                                                            |                                                                                                                              |                      |                                                                                         |

|  |  |                                                                  |  |                |                                                            |
|--|--|------------------------------------------------------------------|--|----------------|------------------------------------------------------------|
|  |  | Plan bat egitea langileen artean euskararen erabilera sustatzeko |  | 2015ko otsaila | Gerentzia, Euskara-arduraduna, zuzendaritza asistentzialak |
